

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

21/9/6 | 369



🌀	Ibon Artola eta Aritz Larreta
🌀	Mintzalaguna
🌀	Igandero patinetan gosalduz
🌀	Irakurlearen begietatik: Xabier Etxeberria
🌀	Ura, Tolosako aldaketen behatzaile

Aitzol
Udal Euskaltegia,
Urratsez urrats
hiru hamarkada

🌀 Elena Aitzkoarekin solasean

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

 **902 402 900**

www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73




Pobreziarik EZ!!

26 GREBA OROKORRA **ELA** EUSKAL SINDIKATUA
Irailak Septiembre

Tolosa San Francisco Ib. 13 Tel.: 943 69 83 14

www.ela-sindikatu.org



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



Prezioak
mantendu
ditugu!!

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
GOITIK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia:
Aitzol Udal Euskaltegia, Urratsez urrats hiru hamarkada

Aitzol Udal Euskaltegiak 2012-2013koa ospakizun ikasturtea du. Euskararen irakaskuntzan bere atak lehenengoz zabaldu zituenetik 30 urte igaro dira. Hiru hamarkada hauetako bilakaera aztertu du Galtzaundik Mikel Uzkudunekin, Aitzol Udal Euskaltegi zuzendaria.

8-11. orrialdeak

Elena Aitzkoa Arabako Apodaka herrian 1984an jaio zen diziplina anitzeko artista dugu. Tolosan ospatu berri den Eskulturasteako lehiaketaren hirugarren saria eskuratu du eta "Harrikumeak", bere lana, Alhondiga plazan ikusgai dago orain.

Elkarrizketa: Elena Aitzkoa

14-16 orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Aritz Larreta	4-5
🌀	Normalizazioa: Mintzalaguna	6-7
🌀	Igandero patinetan gosalduz	12-13
🌀	Irakurlearen begietatik: Xabier Etxeberria, Udazkeneko lorea	17
🌀	Ura, Tolosako aldaketen behatzaile	18-19

Langileek eta gazteek indarra dute erasoak geratzeko



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

Europako ekonomiaren aurreikuspenek oso txarrak izaten jarraitzen dute. Hori bai, badira krisiaren ondorioak sufritzen ez dituztenak: bankariak eta enpresari handiak. Krisiari esker gero eta aberastasun gehiago ari dira pilatzen, eta honek agerian uzten du gaur egungo "demokrazia" kapitalaren diktadura dela. Kapitalistek, Estatua eta sistemaren logika onartzen duten gobernuak erabiltzen dituzte beren tresna bezala, beren klaseko interes propioak defendatzeko.

Ekonomia italiarraren eta espainiarraren "erreskatea" izan da azken asteetako eztabaida garrantzitsuenetakoa Europan. Estatu espainiarraren ordainketa-etendurak ondorio larriak eragingo lituzke. Bankari eta enpresari handiek badakite egoera oso larria dela. Prest daude "elkarri laguntzeko" langileei lepoan soka jartzeko garaian behintzat, eta prest dituzte eraso gehiago eta gogorragoak. Pasa den ekainean, sistema finantzario espainiarra salbatzeko, PPren gobernuak EBri laguntza eskatu zion, honek 100.000 milioi euro utzi zizkion eta Raxoi eta bere ekonomia ministroak adierazi zuten erreskateak ez zuela kostu ekonomikorik

izango eta ez zuela ondoriozko izango herritarrengan. Aste batzuk beranduago ordea, uztaillaren 19an, Madrillgo Kongresuak azken 30 urtetako murrizketa handiena onartu zuen gastu sozialetan.

Orain, bigarren erreskateari buruz hitz egiterakoan, erreskate hau "leuna" izango dela esaten digute. Baina EBZko presidente Mario Draghik berak esandakoak garbi uzten du hau gezurra dela: EBZko zor publiko espainiarra masiboki erosteak, eta EBk PPren gobernuari kiebra saihesteko emango lizkiokeen laguntzeki kontrapartidak dituzte, langileentzat oso "leunak" ez direnak. Orain arte ezagutu ditugunak baino murrizketa

plan gogorragoak izango genituzke.

PPren atzean dagoen burgesia espainiarrak eta EAJ-ren atzean dagoen bertako burgesiak eskubide sozial guztiak suntsitu nahi dituzte eta gainera enpresetan beldurrezko giroa sortu nahi dute langileak soldata mizerableenak onartzera behartzeko helburuarekin. Hau da kapitalisten proiektua. Baina honen aurrean, langileok eta gazteek indarra dugu erasoak geratzeko. Martxoaren 29ko greba orokor arrakastatsua, meatzarien borrokak, Andaluziako jernalarien borrokak, Kataluniako manifestazio historikoa, irailaren 26ko greba orokorra, Ikasle Abertzaleak

estatuko beste ikasle erakunde batzuekin batera urriaren 11rako hezkuntzan deitutako greba, Sindicato de Estudiantes erakundeak estatu mailan urriaren 16, 17 eta 18rako hezkuntzan deitutako 72 orduko greba orokorra... errebolta sozialerako baldintzak badaudenaren seinale dira. Langileen eta gazteen haserrea eta borrokarako borondatea aprobetxatuko dituen borroka antolatzea da falta dena. Horregatik, beharrezkoa da irailaren 26ko greba orokorrak jarraipena izatea denboran luzatuko den borroka planarekin.

Borroka plan honek langile klasearen, gazteriaren eta sektore zapalduen antolakuntza eta kontzientzia maila handitzeko balio behar du. Modu borrokalariari antolatu behar da, lantokietan, herrietan eta auzoetan batzar demokratikoetan oinarrituta, langile klaseak aukera izan dezan bere iritzia emateko, iniziatiba hartzeko eta indarrak bateratzeko. Batzarrekin batera beharrezkoa litzateke borroka komiteak sortzea lantoki, herri edo auzo bakoitzean paper aktibo bat jokatzeko prest dauden guztiei tokia eginez. Funtseskoa da borroka gehitzea langile eta gazte berrien haize freskoa, ez baitute iraganeko porroten pisua, eta eszeptizismoa bezalako etsaiari aurre egiteko modua da. Zeren bai, posible da erasoak geratzeko. Baina horretarako, oinarritzeko da sindikatu etako zuzendari-tza borroka egutegi eraginkor, masibo eta bateratua antolatzea.

Nahiago ditut mediku erdaldunak!

Mediku eta erizain artean euskaraz eroso, airoso... ibiltzeko aukerarik ez dugunok, lehenik eta behin, elkar hartu eta administrazio publikoari presioa egin behar genioke; izan ere, honen kontratazio-politikak ez ditu inondik inora ere euskaraz bizitzeko aukera egin dugunon hizkuntz zein osasun eskubideak errespetatzen. Eusko Jaurlearitzak pasa den ekainean egin zuen osasungintzarako lan-eskaintza publikoan, esaterako, euskara lehen baloratzen zena baino gutxiago baloratu zuen. Beraz, baldin eta euskaldunok osasungintzan ere euskaraz biziko bagara, indarrak metatu eta talde gisa presioa egin behar diogu administrazio publikoari, honek, gure hizkuntz zein osasun eskubideak errespetatzera begirako erabaki politikoak har ditzan. Kontu jakina da, herri presiorik egin ezean, administrazioak ez duela bere borondate hutsez guk nahi/behar besteko aurrerapausorik emango.

Beraz, osasungintza publikoan diharduten eta arituko diren langile guztiak euskaldunak izatea exijitu behar dugu. Oso ohituta gaude lanpostu publikoetako langileei euskara-gaitasuna merito gisa baloratzen, baina, gure ustez, lanpostu publikoko langileen euskara-gaitasunak ez luke merito modura puntuatu behar. Euskara jakiteagatik ez litzateke aparteko punturik edo meriturik eman behar. Euskara jakiteak, merituetarako kontu bat ez baino, lanpostu publikoan jarduteko ezinbesteko baldintza izan beharko luke.

Presioa egiten hasteko, ordea, lehenik eta behin, kontziente



Aritz Larreta Bereziartua
Irakaslea

Izenburua irakurrita bakarrik, besterik pentsa zitekeen arren, gaurko saio honetan, osasungintza arloan ere euskaraz aritzera alde idatzi nahi nuke. Ea gaitz honentzat erremediorik aurkitzeko gai garen!

izan behar dugu, alegia, euskaldunok geure zenbait jarrera eta portaeren gainean hausnartu eta horiek aldatu egin behar ditugu; izan ere, maiz, euskaraz bizi nahi duela aldarrikatzen duen askok ere, epel jokatzeko du osasungintzan euskaraz bizitzeari dagokionez. Zenbatetan entzun dugu euskaldun horien ahotik, "nahiago dut mediku erdalduna eta ona, euskalduna eta txarra baino". Gogorra da gero! Zer adierazi nahi ote dugu gisa horretako adierazpenekin? Mediku euskaldunak, euskaldunak izate hutsagatik, txarrak direla? Erdalduna izateak mediku ona izatea berekin dakarrela?

Eta bada beste kontu bat ere. Esan, erdaltzaleek onartuko al lukete euskara baino ez dakien mediku bat osasungintza publikoan aritzea? Ez, ezta? Bada, nola da posible, orduan, mediku erdaldun elebarkarren aurrean inor

ez aztoratzea? Eta, are gehiago, nola ulertu behar da, mediku erdaldun elebarkar horiei euskara ikasteko exijitze hutsa inposizio gisa hartzea? Pako Aristik orain asko ez dela idatzi zuen bezala, hizkuntza bat bere lurraldean hedatzea edo zabaltzea inoiz ez da inposizioa; inposizioa litzateke guk Madrilen edota Parisen euskara zabaltzea nahi izatea derriro, legez eta isunez. Hizkuntza bat, bere lurraldean hedatu edo zabaltzea nahi izatea, beraz, ez da inoiz inposizioa izango!

Kontuak horrela, bada elkar-tu eta eragiten hasteko garaia! Geure osasun-zentroan bertan has gintezke horretan. Egin genezakeen lehen gauza, erraza oso: oraindik hala egin ez duenak, mediku euskalduna eskatzea. Horra eman genezakeen lehen pausoa. Horra euskara osasunez urratzen hasteko lehen errezeta.

Mintzalaguna, Euskararen erabilpena bultzatzeko egitasmo eraginkorra

6 Euskaraz hitz egiteko beharra dutenei zuzendutako egitasmoa da Mintzalaguna. Ondokoak dira, berriz, helburuak: hizketarako jariora lantzea, euskaraz mintzatzeko ohitura txertatzea eta harreman sare euskaldunak ehuntzea.

Erredakzioa

Horretarako, euskaraz hitz egiteko beharra dutenekin eta egunerokotasunean euskaraz bizi direnekin 3-4 pertsonaz osatutako taldeak egingo ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Astero, ordubetez, elkartuko dira urria eta ekaina artean. Doakoa da eta Mintzalaguna programan izena emateko Galtzaundiko lan taldearekin jarri behar da harremanetan, 943 655 004 telefonora deituz, koordinatzailea@galtzaundi.com helbide elektronikora idatziz edo Tolosako Nafarroa etorbidea 6 helbidean duen egoitzara joanez.

Euskaraz hitz egiteko beharra dutenei laguntzeko prest dauden boluntario euskaldunak esker gauzatuko da Mintzalaguna programa Tolosan. Euskararen erabilpenean eragitea dute helburu euskaldun horiek eta, euskaraz hitz egiteko beharra dutenekin kafea hartuz, paseatuz edo umeei begira parkean egonez, hitz eta pitz aritzen dira eguraldiaz, asteburuko bizipenez edo herriko azken berriaz. Euskaraz aritzeko aitzakia iza-

ten dira, beraz, hizketarako gaia eta kafea.

Euskara, berriz, elkar eza-gutzeko bitartekoa izaten da. Mintzalaguna programari esker, lagun talde berriak sortu dira Tolosan eta, askorentzako, euskararen mundura gerturatzeko bidea izaten da. Horrenbestez, kalean topatutakoan ere euskaraz aritzen dira batzuk besteekin.

Amaia Doyague arduratzen da Tolosan Mintzalaguna taldeak osatu eta koordinatzeaz. Doyaguek azaldu digunez, "Galtzaundin izena emandakoen euskara maila eta ordu-tegia hartzen ditugu kontuan taldeak osatzeko. Mintzalaguna egitasmoan izena emateko, euskaraz komunikatzeko gutxieneko gaitasuna izan behar da. Hala ere, batzuen eta besteen arteko aldeak nabariak izaten dira. Horregatik hartzen dugu kontuan bakoitzaren maila. Bakoitzaren maila ikusi ostean, pertsona hauei laguntzeko izena eman duten boluntario euskaldunekin jartzen gara harremanetan. Elkar aurkeztu eta astero-astero elkartzen hasten dira: batzuk kultur etxean, besteak parkean, tabernaren batean,..."

Doyaguek nabarmendu

digunez, "egitasmo honetan izena ematen dutenek -euskaldunek nahiz euskaraz hitz egiteko beharra dutenek- hurrengo ikasturtean ere errepikatuz egiten dute, euren eguneroko bizitzako bestelako kontuek uzten badiete behintzat -lana, familia,...- eta, horrek, gustura aritzen direla erakusten digu". Ildo horretan, hiztun lanetan aritzen diren euskaldunen lana gorai-patu du: "jubilatua, langileak edo ikasleak izan, euskararen normalizazioarekiko duten konpromisoa erakusten dute

egitasmo honetan parte hartuz. Izan ere, gutxienez, astero ordubete eskaintzen diote egitasmo honi. Euren taldekideek urte amaieran euskaraz hitz egiteko gaitasun gehiago dutela ikusteak asko motibatzen ditu. Gu geu ere harritu egiten gara sarri ikasturte hasieratik amaierara askok izaten duten garapenarekin".

Horregatik guztiagatik, herritarrak, euskaraz hitz egiteko beharra dutenak nahiz euskaldunak, egitasmo honetan izena ematera anima-

tu ditu Doyaguek: "giro ezin hobean ariko dira, lagun berriak egingo dituzte eta euskaraz hitz egiteko beharra dutenek, urte amaieran, hitz egiteko gaitasun gehiago izango dute. Hiztunak, berriz, oso gustura sentituko dira lortutako emaitzekin. Ordu-tegiak,... ere aitzakia ez izaten saiatzen gara. Beraz, euskaraz hitz egiteko beharra dutenei nahiz pertsona horiei laguntzeko prest daudenei, bi aldiz gabe izena eman eta probatzeko deia luzatzen diegu".



Mahala
Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

CDI Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BHEA TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 650 199 FAX: 943 653 916

euskararen semaiorria
euskararen semaiorria
euskarensamaiorria.blogspot.com

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

R A K U
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa



enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Aitzol Udal Euskaltegia Urratsez urrats, hiru hamarkada

Aitzol Udal Euskaltegiak 2012-2013koa ospakizun ikasturtea du. Euskararen irakaskuntzan bere atea lehenengoz zabaldu zituenetik 30 urte igaro dira. Hiru hamarkada hauetako bilakaera aztertu du Galtzaundik Mikel Uzkudunekin, Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariarekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

1982an Udal Euskaltegi izenaz sortu zen gaur egun eskualdean zein eskualdetik kanpo erreferentzia den Aitzol Udal Euskaltegia. Orain lanean diharduen irakasle koadroa, Mikel Uzkudun tartean dela, 1982ko hasieretakoa da. Egun, lan-taldea hamar irakasle eta idazkari batek osatzen dute. 30 urteko ibilbidean eskuratutakoa "eskarmentu handia" izan dela deritzo euskaltegiko egungo zuzendariak. Mikel Uzkudun zuzendaritza lanpostua bigarrenengoz betetzen ari da azken urteotan. Izan ere, 1982an euskaltegia sortzerakoan zuzendari kargua hartu eta bost urtez bete zuen, irakasle guztiak txandaka pasa ondoren bigarren buelta iritsi zitzaion

2008. urtean berriro ere: "tan-kerako karguetan ez du inork egon nahi izaten eta txandaka -txandaka aritzen gara".

Historia

Udal euskaltegiaren hastapenak ez ziren zerotik abiatu, Uzkudunek gogoratu bezala: "alde aurretik Tolosan baze- goeneuskalduntze-alfabetatze mugimendua, AEKk bideratzen zuen eta gau-eskolen bitartez antolatzen zen". Tolosakoa ordea, gau-eskola baino gehi- go ere bazen: "gero eta behar gehiago sortu zen eta goizean ere eskola batzuk ematen hasi ziren, baita arratsaldean ere, eta gauekoekin ere jarraitu genuen".

Egoera horretan, Trantsizio garaian, 1981. urtean Eusko Jaurlaritzak lehenengoz udal euskaltegiak sortzeko proiektuari heldu zion eta, ordura arte lanean aritutako erakundearekin tira-birak izan ziren, gogorarazi du Uzkudunek: "AEKk Euskal Herriko euskalduntze eta alfabetatzearen ardura zuen; politikoki talka bat egon zen AEK eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hezkuntza sailaren artean". Eusko Jaurlaritzak abian jarritako lehen euskaltegi haiek ordea "mugatuak"

ziren, "numeros clausus" en arabera mugatuta alegia.

Herri ezberdinetan zegoen eskaera guztiari erantzuteko prest ez zeudela gogoratzen du Uzkudunek: "bi modulu ezberdin sortu zituen Eusko Jaurlaritzak; lau edo bederatzir irakaslekoak". Tolosako eskaerari erantzuteko nahikoa ez zela ikusirik, Tolosako Udalaren, ezker abertzalea boterean zegoela, eta Eusko Jaurlaritzaren arteko negoziaketak eman ziren. Tolosako Udalak herriko eskaera guztiari erantzun ahal izateko akordioa lortu zuen. Ikasle kopuruari dagokionez, hasiera horretan 700 ikasle- tarrak ere iritsi zen. Egungo datuekin alderatuz gero, ikasturtero 200-250 ikasleren bueltan izaten da Aitzol Udal Euskalte- gian.

30 urte hauetan kokapena -Euskal Herria plaza, Plaza Berria eta Gorosabel kalea-, izena -Udal Euskaltegia eta Aitzol Udal Euskaltegia- eta ikasleen profila aldatu badira ere, Aitzol Udal Euskaltegiak bere xedea mantendu du: "euskaltegia herri- ritarrei euskara irakasteko era- kunde bat da. Hortik aurrera, ikasleak euskaraz hitz egitera bideratzen ditugu. Horretarako, hainbat kultur ekimen



antolatzen ditugu baina ez herrira begira baizik eta gure ikasleriari begira", laburbiltzen du Uzkudunek.

Ikasleak eta metodologia

Ikasleen profila eta ikasketa metodologia dira urte hauetan guztietan bilakaerarik han-

diena jasan dutenak. Esaterako, euskaltegia sortu zenean, ikasleen %80-85a langilea zen, gehienak gazteak. Egun ordea, hezkuntza sistemaren bilakaerari esker, hein handi batean, gazte jendearen aldaketa etorri da: "hizkuntza ezagutzera bultzatu du, gazte jendeak ba-



daki euskaraz”.

Egungo udal euskaltegiko ikaslearen erradiografia hor-taz, ondorengo bihurtu da az-ken urteotan: “emakume asko, kopuru handian gizonezkoak baino dezentez gehiago dira”. Honakoa lehen ezaugarria, gehiago ondoren zerrenda-turik azaltzen direnak: langile liberalak, Euskal Herrian urte asko daraman jendea, “neurri handi batean lotsa apurtxo bat ere sentitzen duena hainbeste urte hemen eta oraindik euskaraz ez jakitearekin”. Eta az-kenekoa, “immigrantea”, “azken urte hauetan immigrazioa dela eta, etorkin dezente ere etor-tzen da euskaltegira”. Honakoa, beraz Mikel Uzkudunek egun-go ikasleen inguruan ateratako argazkia.

Ikasleen profila 30 urte hauetan erabat aldatu da eta baita ikasketarako erabilitako metodologia ere. Gizarteak paperetik aro digitalera saltoa egin bezala, euskaltegiak ere era nabarmenagoan eman du honako aurrerapausoa: “erabat papera erabiltzetik, fotokopiak banatzetik, apunteak eskuz hartzetik, dena informatizatu-ta egotera pasa gara. Aldaketa ikaragarria izan da. Ikasleek ez

dute ezer ekarri beharrik, pa-perik gabe etortzen dira”.

Aro digitalak ekarritako bes-taz, aurrerabideetako bat au-toikaskuntza formula izan da. Azken zortzi urteotan ikasle ugari ikasketa metodo honen baitan bildu dira Tolosako zen-troan. Honetan ere, Aitzol Udal Euskaltegia aitzindaria izan da, bere programa informatikoa garatu zuen eta. “Bazegoen programa informatiko bat bai-na gure ustez gabezia batzuk zituen, osatu beharra zegoen, ez zen nahikoa, ikaslea hanka-motz geratzen zen eta Tolosa-ko Udalarí esker pertsona bat eskolak ematetik liberatu eta materialgintzan jarri genuen, autoikaskuntzarako materiala sortzen”. Horrenbestez, Uzkudunek gogorarazi bezala, or-dudunik Tolosako euskaltegiak autoikaskuntzarako material erak sortutakoa erabiltzen du.

Aipatu materialaren kalita-tea kontuan harturik, bere ga-raian salgai jartzeko bideak ere aztertu ziren. Lan horretarako egin beharreko inbertsioa, or-dea, handia zen; maketazioa, inprenta lanak, cd eta liburu bihurtzearena... Argudio eko-nomikoak medio azkenean

ezin izan zen lana merkatura-tu.

Zio ekonomikoa

Kezka ekonomikoak tarte-ko, Aitzol Udal Euskaltegia aro zaila pairatzen ari da. Euskal-tegia baino Tolosako Udala, bere erantzule den heinean. Izan ere, azken urteotan Eusko Jaurlaritzak HABEren diru-la-guntzak erabat murriztu ditu eta karga Tolosako Udalaren gain erori da: “euskaltegiak sortu zirenean Eusko Jaurlari-tzak konpromiso batzuk hartu zituen, kostuaren %75a bere gain hartzen zuen eta udalak gainerako %25a. Gaur egun %50ean parekatu da. Udala-rentzat zama ikaragarria izaten ari da euskaltegia. Eskaera eta eskaintza ordea ez dira gutxi-tu”.

Egoera honen aurrean, Iñaki Irazabalbeitiak, Tolosako Uda-leko Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako zinegotziak, Tolosa-ko Udalak gai honekiko duen kezka handia azaleratu nahi izan du: “HABEren utzikeria honek Tolosako Udalarengan kalte ekonomikoa sortzen ari da”. Hala ere, hauteskundeak bueltan egonik, egoera aldatu egingo dela espero du Iraza-balbeitiak.

Euskaltegiaren izaera

Aitzol Udal Euskaltegi-az hitz egiterako garaian beha-rrezkoa da “eskualdeko izaera” ere kontutan hartzea. Ikas-leak tolosarrez gain, Tolosal-dea osatzen duten gainerako 27 herrietako herritarrek ere badira: “Tolosan egiten diren gauza guztiak eskualdeari begira egiten dira. Tolosa da

zutabea, zutabearen inguruan beste guztiak dabilta. Euskal-tegiak hasieratik funtzio hori bete du, herri txikietan tarteka talde batzuk antolatu izan dira baina bestela inguruko herrie-tako jendea euskaltegira etorri izan da 30 urte luze hauetan”. Herri txikietatik gerturatutako jende gehiena alfabetazera etorritakoa zela gogoratzen du euskaltegiko zuzendariak: “euskaldun peto-petoak iza-teak bere eragina izaten zuen ikasleengan, herri txikietako jendea euskaltegiaren ikusteak tolosarra zena euskara ikastera bultzatzen zuen”.

Eskualdeko euskaltegia iza-teak onurak baino ez dituela ekarri nabarmendu nahi izan du Uzkudunek: “eskualdeak beste nortasun bat eman dio, eskualdekoa izateak euskara aldetik beste maila bat izatea lortu eta ekarri du”.

Eskualdeko izaeraz gainera udal izaera ere baduela Ait-zol Udal Euskaltegiak azpimarratu beharra dago. Irailean, gaine-ra, “udal euskaltegiak” marka aurkeztu berri dute Euskal He-rriko udal euskaltegiek. Marka sortzeak sare bat osatu nahia-ren konpromisoan zehazturik dago. Sarea osatu bada ere, euskaltegi bakoitza “ente au-tonomoa” da, “udal bakoitza da udal euskaltegi bakoitzaren arduradun”. Hala ere, elkarre-kin lanean aritzearen beharraz mintzatu da Mikel Uzkudun: “ente autonomoak dira baina elkarrekin lanean ari gara, gau-za berean lanean ari gara, zer gutxiago elkarrekin ditugun arazoak, kezkak zein baliabi-deak konpartitzen baditugu”.

Udal euskaltegi sarearen

hastapenak Gipuzkoan eman ziren, duela bost urte Gi-puzkoako *corpusean* lanean hasterakoan; aurrean, aipatu marka Bizkaira ere zabaltzea lortu da. Lehen pausoa marka eta logotipoa sortzea izan da, publizitatea elkarrekin eta era bateratuan zabaltzea. Hortik aurrera, aurrerapausoak baino ez ditu espero Aitzol Udal Eus-kaltegiko ordezkariak: “poliki-poliki hainbat pauso emango ditugu; didaktikan hainbat urrats eman ditugu, azterketak elkarrekin egiten hasita gaude. Guztiontzat abantaila izango da; irakasleontzat, ikasleentzat eta gizarte osoarentzat neurri batean”.

30 urteko ibilbideak eskar-mentua eta kalitatean aurre-rapausoa eskaini dio Aitzol Udal Euskaltegiari. Izan ere, kanpo balorazioen bitartez jasotako klasifikazioan, Tolo-sako udal euskaltegia Euskal Autonomi Erkidegoko ehun euskaltegietatik hamar one-nen artean kokaturik ageri da. “Ez da gure helburua baina azkenean sortzen den kon-petentzia kontuan harturik... Gure helburua euskaltegira datorren ikasleak euskara ika-si eta erabiltzea da”. Klasifika-zio zerrenda hauen erantzule hainbat euskaltegiek tituluen beharra kontutan harturik sortutako lehiakortasunean datza: “administrazioan aritu nahi baduzu euskararekiko baldintza batzuk bete beha-ko dituzu, tituluak behar dira, horregatik hainbat eus-kaltegiaren lehiakortasun dinami-ka sortu da, emaitza hobekien zuzen dituen jakiteko. Hala ere, ez dut uste

hori gure helburua denik ezta inoren helburua izan behar-ko lukeenik”, zehazten du Uzkudunek.

Honako datuak, hala ere, ez dira kasualitatea, urtetik ur-tera ikasleek azterketa ofizia-letan eskuratutako emaitzen ondorioa dira: “horrek erakus-ten du gauzak txukun samar egiten ari garela eta ikasleek azterketa horietan euskara gairatzen dutela, maila ematen dutela”.

Aitzol Udal Euskaltegiaren-tzat 25. urteurrena ospakizun

data handia izan zen. Horre-gatik, aurtengoan jarduera soilen bat aurrera eramango dutenaren ustea du Uzkudu-nek. Udalarekin elkarlanean, Jose Ariztimuño “Aitzol” ze-naren inguruko hitzaldi eta erakusketak ospatuko direla aurreratu du euskaltegiko zu-zendariak. Honetaz gainera, 30. urteurrena ospatu alde-ra, ikasle-kopurua eta aipatu datu onak mantentzea da eus-kaltegiaren helburua, urratsez urrats euskararen irakaskun-tzan urte gehiago betez. 6



Beti Añi
galester

Garaian garaiko janariak eta arraikiak bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

IG
GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85



Igandero patinetan gosalduz

Irailaren hasierarekin batera, ekimen berritzailea abian jarri du Nestor Rebollok; kirola eta aisialdia uztarturik patinatzeko zitak antolatzen ditu billabonatarak. Honela, igandero Tolosako Usabal kiroldegiko Bidebide tabernan gosalduek ondoren, bertaratutakoek bidegorriari heldu eta patinatzeari eta jende berria ezagutzeari ekiten diote.

Erredakzioa

Nestor Rebollok duela 18 urte patinatzen hasi eta gaur egun arte zaletasun horri heldu dio. Ogibidez ordea sortzailea da, kreatibitate enpresa bat du bere gain. Berak dioenez, bi elementu hauek uztartuta garatu da igandeko plan honen ideia: "irristatzaileen gosari berezia".

Patinetan lehenengoz duela 18 urte igo bazen ere, betidanik tankerako kirolean murgildurik ibili da Nestor Rebollo. Skatea eta bizikleta akrobatikoa bere zaletasunen artean daude. Patinakin erosi zituenean oso jende

gutxi ibiltzen zela gogoratzen du. Gaur egun, zaletasuna zabaldu da eta Nestorrek gurpiletan irristatuz kilometroak egiten jarraitzen du: "batzuk plaza batean akrobaziak eta trukuak egiten disfrutatzen dute, nik ordea kilometroak egiten".

Patinetan ibiltzeko ekintza honetan parte hartu nahi duen orok igandero goizeko 10.00etan Usabal Kiroldegiko Bidebide kafetegian patinetan azaldu besterik ez du; prezio berezian gosaria eskuratu eta ibilbideari energiari baterik ekin. Ordiziara daraman bidegorria hartu eta Alegiako Txintxarri jatetxea bitartean, patinatzaile guztiak batera joaten dira, maila ezberdinak kontutan harturik. Bertan taldekideek irristatzaileen pintxo-potea prest dute, edari eta pintxoak prezio berezian, alegia. Bidegorriaren puntu honetatik aurrera kirolari bakoitzak bere erritmoari helduko dio, beti ere bidegorria ibilbide hartuta.

Nestor Rebollok bultzatutako lehen zitan 25 patinatzaile elkartu ziren, maila ezberdinak kontutan harturik, trebeenak ltsasondora iritsi ziren: "oso gustura aritu ginen, gehienak aurpegi ezagunak ziren baina jende berria ere azaldu zen. Jendea ezagutzeko aukera izan genuen".

Izan ere, patinatzaileen zitarren helburuetako bat patinatzaileen zaletasuna jendearekin partekatzea da. Honela zehazten du antolatzaileak: "bidegorrian patinatzen dudalako bururatu zait honako ideia;

gehienetan, patinatzaileak banaka edo binaka ikusten ditut eta igande goizerako plan egokia zela otu zitzaidan".

Guneari dagokionez, Tolosa-Ordizia bidegorria alegia, aukerarik egokiena zela aitortu du Nestorrek: "Oiartzun ere buruan izan nuen baina aldapatsuagoa denez honi heldu nion. Lurraren baldintza hobeak ere kontutan hartu nituen". Bidegorria bertako patinatzaileentzat ezaguna bada ere, ezaguera Donostiara ere zabaltzen da: "Donostioller taldekoak askotan bertara etortzen dira patinatzerara eta igandeko lehen zitan ere klubeko ordezkari izan genuen". Bidegorriak gainera, Nestorrek zehaztu bezala, aldaera ezberdinak ditu: "Ordiziara heldu eta Lazkaora doan bidegorria hartzeko aukera dago, Olaberriatik Seguraino heldu daiteke, Ezkiora joateko aukera ere badago...Nahi duenak goiz osorako eta baita gehiagorako aukera ere badu".

Patinetan ibiltzera joateko plana hiri ezberdinetan hedatuta badago ere, Nestorren ustez Tolosakoak berezia egingo duen elementua du: "igande goizerako plana da, gosariak aitzakia ematen du, bestelako zitetan patinatzaileen artean gidak eta stoper-ak izaten dira, patinatzaileen martxa eta bidegurutzetako trafikoa kontrolatzeko. Patinatzaileei ez zaizkie gehiegi gustatzen, bati zein besteari itxaron behar zaiolako. Kontrara, zita honetan bako-



tzak bere erritmoa darama eta norberak bere patinatzeko eraz disfrutatzen du".

Patinatzaileen profila

Izan ere, patinatzea atsegin dutenen artean profil ezberdina ere izaten dira: aisialdi edo fitness patinatzaileak, abiadura -lasterkariak eta freeskate roller-ak. Aisialdi edo fitnessa aitzaki hartuta kirol honetan murgiltzen denak kilometroak egitea du buruan kirola praktikatu edo ondo pasatzeko; abiadura-lasterkariak ordea, entrenatu eta txapelketatan parte hartzea du buruan eta azkenik freeskate roller-ak hiri barnean oztipoak

gainditzea bilatzen du, azken honetarako trebezia izatea ezinbestekoa da, Nestorren esanetan.

Patinatzeko maila ezberdina kontutan harturik, Nestorrek deialdia luzatu nahi izan die trebeziarik ez dutenei: "ikas-teko gogoz bazaude, irakatsiko dizugu; gurekin etortzeko ikastaroak eskaintzen dizkizugu". Ikastaroak, lehiaketak eta bestelako ekintza berritzaileak ere antolatzen jarraituko dute igandeko ziten baitan. Hala ere, Nestorrek azpimarratu bezala, "beti ere irabazi-asmorik gabe, ondo pasatzeko intenzioarekin".



Elena Aitzkoa

“Zuzenean aritzeak jendearengan eragin gehiago sortzen du”

Elena Aitzkoa Arabako Apodaka herrian 1984an jaio zen diziplina anitzeko artista dugu. Tolosan ospatu berri den Eskulturasteako lehiaketaren hirugarren saria eskuratu du eta “Harrikumeak”, bere lana, Alhondiga plazan ikusgai dago orain. Lana garatzeko garaian Elena plazan bertan lanean aritu da, herritarrekin zuzeneko harremana sortuz. Artistak publikoaren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen du eta horregatik Tolosako haurrek “oparitutako” objektuak bere lanaren parte bilakatu dira.

Naiara Roldán de Aránguiz

“Harrikumeak” izeneko zure proiektuak hirugarren saria jaso du Tolosako Eskulturastean. Zer nolako esanahi eta ondorio izan du zuretzat?

Ilusioa egin dit. Normalean gure lanak aretoetarako prestatu behar izaten ditugu. Artista gazteek ez dute aukera gehiegirik euren lanak kalean ikusgai

jartzeko. Nire artelana kalean ikustea eta piezak sortzeko garaian izan dudan jendearen inplikazioa gustatu zait. Jendearengana forma estetikoaren bitartez iritsi nahi dut, baina baita aurrez-aurreko harremanean ere. Askotan aurrez-aurrekoak artelanek baino inplikazio eta akuilatze gehiago eragiten du eta. Obra fisikoa egotea ezinbestekotzat jotzen dut, baina zuzenean aritzeak jendearengan eragin gehiago sortzen du.

Herritarren parte hartzea ezinbestekoa ikusten duzu, kasu honetan ikasleena era berezi batean. Zer nolako harrera egin dizute?

Tolosako lau ikastetxeak bisitatu ditut, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleekin elkartu naiz. Umeen adina kontutan hartuta bisitaldiak laburrak izan dira, eskulturaz beteriko poltsa bat eraman nien, nire burua eskultore gisara aurkeztu nuen eta Tolosan eskultura bat egingo nuela adierazi nien. Lana osatu ahal izateko euren lana behar nuela esan nien; eskulturaren txertaturik ikusi nahi zituzten objektuen beharra nuela; objektu berezi edo sekreturen bat ekartzeko eskatu nien. Eta horrela egin dute; plastikozko jostailuak, bitxiak, harriak, maskorrak, aterki bat, pilotak eta baita euren sortutakoak ere ekarri dizkirate; arrautza-ontziekin egindako loreak adibide bat baino ez dira.

Zer nolako garrantzia du umeak artearekin harremanean jartzeko?

Bikaina da. Euren egunerokotasunarekin ez dago salto handirik, haiek sorkuntzan bizi dira, euren izateko era naturala da, uneoro egiteko moduak

asmatzen dituzte, baita erlazionatzeko moduak ere... Aparta da hari hori ez galtzea; helduen mundua eurekin sorkuntzaren bitartez komunikatzea, horren naturala egiten zaien moduren bitartez, alegia.

Umeei orokorrean parte hartzea gustatzen zaie. Nik objektuak ekartzeko eskatu nien baina nire piezak sortzen ari nintzela parte hartzeko gonbitea luzatu nien. Moldeak egiten nengoela, plastikozko ontziak zementuz betez, porlana eragiten utzi nien, ondoren ume pila azaldu eta ia euren kabuz lanean hasi ziren; iturrira uraren bila joan, zakuak bete... Zenbait ume arratsaldeko lauetan etorri eta zazpiak arte hemen aritu ziren. Parte-hartzea izugarria izan da, momenturen batean 30 ume ere elkartu dira. Oso ondo pasa dute.

Nola sortu zen “Harrikumeak” proiektuaren hasierako ideia?

Nire lan egiteko eraren jarraipena da; asko margotu izan dit baina azkenaldian eskulturaren erabat murgildurik nago. Tamaina antzekoa duten eskulturekin aritzen naiz lanean, material ezberdinak erabiliz –oihalak, egurrak, liburuak, korapilatutako elementuak...-. Antolamendua da interesatzen zaidana. Pieza bakoitzak bere kabuz balioa du, baina elkarrekin espazioan duten harremana interesatzen zait; elkar eragiten dioten indarrak, erakarpenak... Eskulturak jarri ahal izateko tokirik egokiena gunee zabal eta laua da, horrela nire eskulturek paisaia osatu dezakete, planetak bezala elkar erakarrit. Nire eskulturak normalean bertikalak baino horizontalak izaten dira, lurra ohol handi bat bilakatuz. Azken



aldian landutakoaren jarraipena da. Horregatik, ezagutzen nuen lana Alhondiga plazara ekartzeko pentsatu nuen; asko gustatu zitzaidan, plaza laua da, irekia, estetikoki interesgarria suertatu zitzaidan.

Plazak gainera ez zeukan pisu historikoa, inguruan pisu handiko eraikuntzak daude baina ez da haien plaza nagusia. Ia nahigabe sortutako espazioa da. Espazio irekia mantentzea interesatzen zait, banatzen duen elementurik gabe. Eskulturak lurra jarri ditut, harrizko lorategia osatuz.

Lana aldeztu aurretik erabat zehazturik izaten duzu? Jendearen inplikazioaren mende ere bazaude kasu honetan...

Nire lana jendearengana hel-

tzeari nahi dut. Azkenaldian performance-ak egiten hasi naiz, umeentzako tailerrak ere egiten ditut... Adibidez, Gasteizko Montehemoso Kulturunean umei zuzenduriko tailerra eskaini nuen, espazio-ontzi bat egin genuen, aldeztu aurretik ez zegoen diseinurik, era naturalean antolatu ginen... Umeekin gauzak egiten jarraitzeko gozoz geratu nintzen.

Zortzi urteko iloba daukat eta berarekin askotan aritzen naiz. Ideia asko eskaintzen dizkit, elkarrekiko harremana da, nik materialak eskaintzen dizkion eta berak bueltan ideia mordo bat eskaintzen dit, askotan elementuak kolokatzeko eraren ingurukoak.

Elementu hauek kontutan harturik eta Eskulturaste



koaren eta bestelako artisten iritzia ere interesatzen zait.

Talde-lanak performance, tailer eta erakusketetan osatu izan ditut: Kiko Perezekin Basaurin, Raul Dominguezekin Gasteizko Liburutegi Publikoan... Momentuan June Crespo eskultorearekin lanean ari naiz, Iruñeko Ciudadelan aurkezteko. Interes handia nuen beste eskultore batekin lanean aritzeko; espazioaren antolamendua interesatzen zait, eta beste pertsona batekin aritzerakoan elkarriketa eta negoziazioa sortzen da.

Junerekin adibidez bere tailerrean zenbait astez aritu izan naiz baina ondoren bakoitza bere aldetik jarduten da. Hala ere, uneoro elkarri animatzen diogu; besteak aurreratu duela ikustean, zuri ere gogoia piztu egiten zaizu, bakoitza aurreratzeko beta ematen dizu horrek. Hala ere, bakarkako lana ere oso garrantzitsua iruditzen zait.

Diziplina-anitzeko artista zaitugu. Nola aukeratu diziplina idea bat garatzeko orduan?

Etengabeko jarduera da. Umeetatik margogintzarekin hasi nintzen, gutxika fisikoagoa bilakatzen hasi zen, objektuak sortu arte. Etengabeko ikerkuntza dago, etengabeko lana.

Bestetik, filmak egitearen ideia ezberdina da, batzuetan zure lan egiteko era gogorazten dizkizuten gauzak ikusi eta eskulturan lortu nahi dituzun interesak antzematen dira, objektuen arteko harremana, jendearen mugimenduak... ia era automatiko batean grabatzeko gogoia sortzen zait. Beste batzuetan nik idatzitako testuak beste norbaitek esateko gogoia izaten ditut. Gurutzatzen diren elementuak ugari dira, ez

dut planifikatzen. Gauza batek beste batera eramaten nau.

Performance munduan nire mutil-lagunaren bitartez murgildu naiz, duela gutxi hasi naiz performanceak sortzen. Gehienetan ahotsaren bitartez sortutakoak dira, jendearekin hitz egiteko beharra daukat, feedbacka behar dut, aurrera egin eta arazo komunak aztertu.

Zer nolako garrantzia dute Eskulturastea tankerako ekimenez, artearen garapenean eta artisten arteko harremanean?

Jende gehiago gerturatu beharko litzateke. Eztabaidentan gai ezberdinak sortzen dira eta seinalea, hondarra, marka bertan geratuko da. Mundua ezagutzen ez duen jendea iruspegi bat eskaintzen dio, panorama apur bat eskaintzen dio. Artistentzat ona izaten da, elkarrekin aritu ahal izateko. Adin ezberdineko artisten topagune izateko ere baliagarria da.

Zer nolako proiektuak dituzu buruan momentuan?

Behin Eskulturastea amaituta June Cresporekin prestatzen ari naizen erakusketarako eskulturak amaitu behar ditut. Honetaz gain, bi argitalpen labur kaleratuko ditut, bi poema luze dira, azken urtetan idatzitakoak, Eremuak plataformaren bitartez diru-laguntza eskuratu baitut. Raul Dominguez artistarekin batera proiektu bat aurkeztu nuen, berak marrazki-liburu bat kaleratu nahi zuen eta batera argitaratuko dugu.

Ondoren ez dakit zer gertatuko den, azken urtetan Madril bizi izan naiz, udan Bilbora etorri naiz erakusketa prestatu asmoz eta ondoren Berlinera joan nahiko nuke...

Irakurlearen begieratik



Ione Gorostazu
Irakurlea

Zenbat aldiz entzun ote dugu esaera: gezurra hanka motza du. Hala ere, hanka motz horrekin, sarri aurrera egiten du gezurra, herrenka bada ere, tipi-tapa. Estropezu egingo du, oreka galdua kili-kolo ibiliko da, baina, batzuetan, bere bidea jarraitzen du, erori gabe.

Xabier Etxeberria, Udazkeneko lorea

Eta horrelaxe gertatzen da liburu honetako protagonisten kasuan ere. Mikel, Naroa eta Lucia dira pertsonaia nagusiak, berrogei urteren bueltan dabilen hirukotea.

Gustuko lanik ez, ametsei uko egin izanaren hutsunea, errutina, beste baten itzalpean emandako bizitza... norberak ditu bere ezinak, eta gezurra baliatuko du horiek estali, edo, behintzat, eramangarriago egiteko. Bakoitzak bere buruari kontatutako gezurrak dira batzuetan, munduari esanak, bestetan. Liburuan esaten denez, ez omen da ona guztia jakitea, eta ez jakiteak, batzuetan, babestu egiten omen gaitu. Babes hori mugatua da, ordea; pisu hartzen du gezurra, itolarria eragiten, eta zama horretatik askatzeko tentaldirik ere izango da, nahiz eta azkenean

ezerezean geratu, egia ez baita, gehienetan, gezurra baino arinagoa.

Xabier Etxeberriaren bigarren bakarkako eleberria da honako hau, nahiz eta beste hainbat liburu eta eleberri ere idatziak dituen anaia Martinekin batera. Liburu pertsonaia arabera antolatutako kapitulu motzetan banatzen da, eta, hauetan, narratzailea ere aldatu egiten da. Mikel lehen pertsonan zuzentzen zaigu; Luciare dagozkion ataletan, berriz, narratzailea da, bigarren pertsona erabiliz, Luciare zuzentzen zaiona, eta Naroaren kontuak, berriz, hirugarren pertsona orojakile baten ahotsetik datozkigu. Gustatu zait kontalariaren aldaketa hori, nolabaiteko dinamismoa eta kolore aldaketa eskaintzan baitio testuari, nahiz eta distantziaren joko

horrek gehiago gerturatzen gaituen Mikelengana, eta, Naroa, berriz, urrunxeago geratu zait niri, hainbeste ezagutu ez dudana sentsazioa edo utzi dit.

Liburuan zehar topatu ditut gauza interesgarriak; Luciare pertsonaia, esaterako, eta honek ahizparekin daukan erlazioa, edo, hobeki esanda, halako obsesio moduko bat, gainditu gabeko min handi bat, minaren bidez sendatu nahi izan duena. Pertsonen arteko ezin ulertuak dira, izan ere, nobelako gai nagusi, maitasunak dena ez baitu erraz egiten. Izan ere, nobelako pertsonaiek elkar maite dute, baina, hala ere, harremanak bihurriak, sarri jasangaitzak dira. Edo agian ama, bikotea edo ahizpa derrigorrean maite behar hori bera da ezinak sortzen dituen.

Egoera batzuk behartu samarrak iruditu bazaizkit ere, hala nola gurpilarena edo bukaera, borobilegia, akaso, kontakizuna, orokorrean, ongi landua iruditu zait, eta, egilearen helburua gezurra zein egiaren zilegitasuna zailantzan jartzea bada, horretara eramaten zaituela uste dut. Aspaldi esana da egiak min egiten duela. Baina galdera zera da, noraino da zilegi min hori, egiaren izenean?

Ura, Tolosako aldaketen behatzaile

Daniel Mera Donostian jaio zen 1986an. Eskulturastearen baitan antolatutako lehiaketan bigarren saria eskuratuta, "Ura" bere lana Tolosan garatu du esku-hartze iragankor gisara. Zerkausia eta Triangulo plazako Gaztelako Atea bi eskultura oinarri hartuta, elkartu ditu, Oria ibaiko ura garraiatuz.

Erredakzioa



Planifikatutako atzerapen txikiarekin lortu zuen Daniel Merak "Ura" esku-hartze iragan-korra martxan jartzea. Eskulturasteak irauten zuen egunetan zehar lanean aritu zen Daniel Mera tolosarren aurrez-aurrez, ura aipatu bi kokapenen artean garraiatu ahal izateko, loop eran, hau da, etengabe. Ura toki batetik bestera pasatzeko pvc materialezko hodiak erabili ditu, bi ur-ponpa eta sorgailuen laguntzaz.

Daniel Merak zehaztu bezala, proiektua Tolosako testuinguru historikoarekin harremanetan dago; hau da, Errentegibel ubidearekin parekotasuna azalduz, Erdi Aroko Tolosan aipatu ubideak artelan honen funtzio berdina betetzen zuen. Daniel Merak gogoratu bezala,

Tolosako hiri-paisaia hirigintza aldetik berrantolatu eta XIX. mendearen hasieran ubidea estali zen. Hau kontuan harturik eta artistak berak adierazi bezala, gertaera historiko hau aitzakia da arazo tekniko bat proposatzeko; eskultura ikuspegitik aztertuta arazo tekniko honen oinarria arazo beraren soluzioan datza. Arazo horiei beraz eskultura ebazpena eskaini dio Daniel Mera artistak.

Zerkausiaren eta Triangulo plazako Gaztelako Atearen kokapenen aukeraketak bere garrantzia badu. Eskultorearen lehen aukeraketa, Triangulo plaza, enparantzak duen inklinazioan oinarriturik dago -Errentegibel ubidearen ondorioa- eta Gaztelako Ateak berak balio sinbolikoa ere

hartzen du, izan ere, Erdi Aroko harresidun Tolosan funtzio berdina bete zuen. Bigarrenak ordea, Zerkausiak, Oria ibaia- ren "ikuspegi pribilegiatua" re- kin du zerikusia, Meraren esanetan.

Ura eta Triangulo plazaren inklinazioak proiektuaren metafora bihurtzen dira: "plazaren inklinazioak dagoneko ez dagoen zerbaiten sinbolo bihurtzen da, existitzeari utzi diona". Inklinazio honek erabateko eragina izan zuen Gaztelako Atean kokatutako instalakuntzan; honela, inklinazioa zein ura proiektuaren metafora bihurtzen dira, Merak azaldu bezala. Ura, ikusle aktibo bihurtzen da, herriaren eraldakuntza guztiak, belaunaldi ezberdinak eta aldaketak ikusi dituen. Etorkizunari begira, ura metafora horren jarraipena izango da, Meraren esanetan. Izan ere, urak etorkizuneko aldaketen eta guneen funtzio ezberdinen ikusle izaten jarraituko du.

Garapenari dagokionez, Mera pozik aurkeztu da: "zailtasunekin garatu da proiektu



arraroa delako, inoiz ez naiz ur-ponpekin lanean aritu, horri aurre egin behar izan diot baina hala ere, ez dago nabarmendu beharreko zailtasunik".

Bestetik, Mera pozik dago Eskulturastean eskuratutako bigarren sariarekin eta baita Tolosan, kalean, garatzeko aukera izateagatik: "era pertsonalean pozik nago, Gipuzkoarra naiz, Donostiarra eta nire lurraldean guztiak, belaunaldi ezberdinak eta aldaketak ikusi dituen. Etorkizunari begira, ura metafora horren jarraipena izango da, Meraren esanetan. Izan ere, urak etorkizuneko aldaketen eta guneen funtzio ezberdinen ikusle izaten jarraituko du.

Lana prestatzeko garaian tolosarrekin eskaini dioten harre- rrearekin gustura azaldu da

Mera: "prozesuan zehar jendea hurbildu izana garrantzitsua izan da; jendea gerturatu da, kuxkuxean ibili da, zertan ari nintzen galdetu didate; zer ikusiko duten azaldu diet, zertxobait arraroa iruditu bazaie ere, oso irekiak izan dira, jakin -minez azaldu dira".

Azkenik, Eskultura eta Esku -Hartze Artistikoaren I. Simposiumak eskainitakoarekin pozik azaldu da Donostiako artista: "arteak, gainerako ikasgaiak bezala konplexua da, medikuntzak ere bere konplexutasunak ditu, alor teknikoa dago eta jendearengana iritsi ahal izateko era errazean aritzeko ahalera egiten da. Eskulturaren inguruan ikuspegi orokorra eskaini nahi izan da, baita Tolosa erreferentzia hartuta ere".

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo. 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA. 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

matilda

zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

irakurri
entzun
Ikusi

Boga Boga
Itxaro Borda

Amaia Ezpeldoi gure literatura-ko pertsonaia berezietarik bat da. Detektibe honen bosgarren nobela dakar orain Itxaro Bordak, ezusteko betetako kontakizun bizigarria. Baionan zabor biltzaile lanean jarduteaz gainera, aspaldiko desagertze bat argitzen tematu da Amaia Ezpeldoi.

Geure Kolkotik 2012
Euskal Herriko Trikitixa Elkartea

Ruben Isasi, Oskar Estanga, Arkaitz Allur, Monik Valor eta Xabi Arakama dira Geure Kolkotik bildumako hirugarren ale honetako partaideak.

Dragoi ehiztaria
Patxi Barco

Gorkak (Asier Hormaza) bere iraganari aurre egin beharko dio semearekin bere bizitzaren historia partekatu ahal izateko, baina nola azaldu ume bati bere aitak elkartasunagatik jendea hiltzen zuela? Gorka ETako kide izandakoa, 80ko hamarkadan Erdialdeko Amerikako borrokan beste internazionalistekin batera parte hartu zuen.

hitzorduetak

Irailaren 21etik urriaren 5era bitarteko

Kz Gunea

Albiztur. Irailak 21, ostirala. 16.00-20.00 bitartean monitoria Kz Gunean egongo da.

San Mielak. Irura

Irailak 21, ostirala. 18.30ean hasita agurra, txupinazoa eta herensugearen jaitsiera; haur eta helduen danborrada; barrikotea eta dantzaldia "Erromeria" taldearekin.

Irailak 22, larunbata. 9.00etan gazte festaren hasiera izango da; Txu txu tren eta puzgarriak, gazteen 1.go dantza-soka, haurren bazkaria, gazte festakoen bazkaria, haurrentzako eskulanak eta jokoak. 19.00etan hasita, gazteen 2. dantza-soka, afaria eta Ze esatek? eta La Pegatina taldeen kontzertua.

Irailak 23, igandea. 10.30 Molto Grand Prix lasterketak; goiz eta arratsaldean, haur-parkea Loatzo Plazan eta Paper Kalean eta 18.30ean sagardo dastatzea, lñaki eta Gari trikitilariak girotua afalordura arte.

Irailak 27, osteguna. 18.00etan Loatzo Musika Eskolako emanaldia eta ondoren, merienda. **Irailak 28, ostirala.** "Kultura Plazara" ikuskizuna Irrien Lagunak Kluba taldearen eskutik, kalejira buruhandi eta erraldoekin eta Loatzo Musika Eskolako txistulariekin, txistor-jatea Share

Elkartean atarian, Play Back jaialdia eta dantzaldia Gugaz taldearekin.

Irailak 29, larunbata. Diana, meza nagusia, herri-hamaiketako plazan eta Gazte Alaiak Elkartean. Arratsaldean, Areto-triatloia: Anoetako eta Irurako taldeen arteko norgehiagoka eta gauean dantzaldia Laiotz taldearekin.

Irailak 30, igandea. 10.30ean Anoeta, Alegia, Billabona, Ibarra eta Irurako dantzari-txikien emanaldiak plazan eta kalean zehar, Dantza-soka eta herri-bazkaria. 19.00tan Bertso saioa plazan, Sustrai Colina, Jon Maia, Alaia Martin eta Agin Rezolarekin. 21.00tan, Herensugea erretzea.

Azoka

Ibarra, azoka eta piparra azoka. Irailak 23, igandea. Hauspibarra Kultur Elkartea antolatuta. Ibarra Emeterio Arrese parkean eta San Bartolome plazan. Euskal Herriko Piperraren III. Topaketa gauzatuko da eta baita Tolosaldeko XV. Ezti-txapelketa ere.

Turismo Esperientzia

Tolosako Babarrunaren Bidaia Ereitetik Platerera. Irailak 23, igandea. 10.30-15.30. Biltzea. Olateaga Goikoa Baserria (Ur-

kizu, Tolosa). Urkizu elkartearen bazkaria. Izena emateko: 943 697413, tour@tolosaldea.net, Sta. Maria plaza, 1 (Tolosa). Helduak 20 euro eta umeak 10 euro.

Gorrotxategi, tradizio gozoa. Irailak 29, larunbata. 11.00-13.30. Gorrotxategi Konfiteria museoaren bisitaldia. Rafa Gorrotxategi berak azalduko ditu museo honen detaile guztiak, historian bidaiatuz konfiteritzaren historiaren bitartez. Tolosako teila ezagunak prestatzeko tailerra. Helduak 19 € eta haurrak 9 €. Izena emateko: Tolosaldea Tour 943 69 74 13 edo tour.tolosaldea.net

Erakusketa

Ni Pinotxo naiz. Pinotxoren istorioa, inoiz kontatu ez dizuten eran. Irailaren 23a bitartean. Tolosa, Topic.

Sentsibilizazio Astea

Pertsona Gorren IX Sentsibilizazio Astea. Hitzaldia. 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendurik. Julian Rodriguez Rojok eskainia. Irailak 25, asteartea. Tolosa, Laskorain Ikastola. Irailak 26, asteazkena. Ibarra, Uzturpe Ikastola. Irailak 29, larunbata. Pertsona gorrek egindako artisauen azoka, Zeinu Dantza ikasta-

roa, lagun arteko estropada, umeentzako jolasak, manifestuaren irakurketa, gor zein entzuleentzako ikuskizunak Leidorren.

Tailerra

Tolosaldeko baliabideak ezagutu. Irailak 25, asteartea. 10.00. Tolosako Kultur Etxean. Izena ematea: Tolosaldea Garatzen (943654501 edo inmigratzioa@tolosaldea.net).

Sukaltalka, sukaldaritza tailerra. Irailak 27, osteguna. Tolosa, Asuncion Klinikak antolatuta. Sukaldaritza kardio-osasuntsu ikastaroa. "Osasuna elikatu" programaren baitan. Roberto Ruizek Fronton jatetxeko sukaldariak eskainiko du ikastaroa. Kardiologo batek bihotzeko gaixotasunen arriskuei buruzko hitzaldia eskainiko du, elikadura irizpideak irakatsiz. Ruizek osasuntsuak ez diren elikagaiak baztertuta aukera osasungarriagoak erabiltzen dituzten errezeten adibideak erakutsiko dizkie ikasleei. Ikasleek plater desberdinen prestatutzan parte hartzeaz gain hauek dastatzeko aukera izango dute.

Zikloia

Irailak 28, ostirala. Birakabareta. Suyanema, Tic-Tac, Hortzaka, Lorena Arangoa. 20.30. Tolosa, Kultur Etxea.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Langile eta Hezkuntza Sailak diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Irudi digitalen tratamendua	2012.09.24	8
Lorezaintzako proiektuak diseinatu, irudikatu eta aurkeztea	2012.09.24	280
Elektrodo estali bidezko soldadura eta TIG soldadura	2012.09.25	659
Soldadurako langilea	2012.10.08	419
4. Nazioarteko Gaurkotasun Mintegia	2012.10.08	12

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 21 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteazkena, 26 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Astelehena, 1 Iturrioz, I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Larunbata, 22 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 27 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Asteartea, 2 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Igandea, 23 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Ostirala, 28 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteazkena, 3 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa
Astelehena, 24 Iturrioz, I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Larunbata, 29 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Osteguna, 4 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa
Asteartea, 25 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Igandea, 30 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Ostirala, 5 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurremendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Izkaztegiatan 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 6 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

Horoskopoa

Irailaren 21etik urriaren 5era arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Baliteke irudi aldaketa garaian murgilduta egotea, probetxua atera eta maitasunerako baliagarria ere izan daiteke. Lan kontuetan ere aurrera egiteko aukera duzu. Zure kasuan antolakuntza eta lasaitasunak zeresan handia izango dute.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Diruari dagokionez, kontzentrazioa mantendu beharko zenuke, eskuarteant ditzun proiektuak zainduz. Finantza kontuetan objektiboa izan beharra dago. Sentimenduak bideratzen asmatu behar duzu.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21

Gauza berriak ikasteko gogoz zaude. Bizitzan estimulu berriak daudela sentitzeko beharrez zaude. Proiektuak aukeratzen trebea izan zara beti eta oraingoan ere zure intuizioak ez dizu kale egingo.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Zure nahiak askatasunez bizitzeko garaian murgilduko zara. Sorrenak aukera berrietan lagunduko dizu. Aprobetxatuz gero, ideia ederrak sortu eta baliabideak ekarriko dituzte. Aldaketa positiboa.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zure burua promozionatzeko garai aproposa dator. Dena martxan jarri ahal izateko ideia gehiegi ditzu buruan, onenak aukera itzazu. Balio ez dizuna zure bizitzatik atera beharko zenuke.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Errutinarekin apurtuko duen maitasun istorioa bizitzeko aukera. Etorkizun laburrean oso baliagarria egingo zaizun trebezia bat ikasiko duzu datozen egunotan.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Erabakiak hartzeko gaitasuna duzu baina oraindik argi ez dituzun sentimenduak agerian uztea ere ez zaizu komeni. Jende berria ezagutzearekin batera, aisialdiaz gozatzeko aukera gehiago izango duzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Harremanetan seriozoki murgilduko zara. Azken aldian bizi izandakoari buelta gehiegi emango dizkiozu, hausnarketa garaia iritsi zaizu. Zure buruarekin leiala izatera behartuta zaude.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Finantza kontuek zure atentzioa eskuratuko dute. Adi egonez gero, egoerak zure alde egingo du. Kontzentratu egonez gero, oztopoak erraz gailenduko dituzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Iritsi beharrekoa dagokionean helduko da, ez ezazu egoera behartu. Harreman pertsonalak garatzeko unea, erronka berrien garaia hasiko da. Finantza arloan, garai hobea dator; baliabide material eta ekonomikoak areagotuko dira.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Helburuak eskuratu ahal izateko plan baten estrategia martxan jartzea biderik egokiena da. Arazo bakoitzari behar den denbora eskaini behar diozu. Adisidiez disfrutatzeko garaia.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Lan arloko helburuak eskuratzeko aukera, negoziaketa garaia dator eta. Erronka berriei aurre egiteko unea heldu zaizu. Bikote arteko kontuek garrantzi gehiago hartuko dute. Aukera guztiez jabetuko zara.

IREKI BIHOTZA
MINTZALAGUNENTZAKO

mip mintzapraktika
galtzaundi

IZENA EMATEKO:
Galtzaundi Euskara Taldean

INFORMAZIOA:
Galtzaundi Euskara Taldea (Nafarroa etorbidea, 6)
Orduetgia: asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara
943 65 50 04 • koordinatzailea@galtzaundi.com

SUSMARTZAILER:
galtzaundi topagunea

LAGUNTZAILEK:
TOLOSako UDALA



Komikia: Joseba Antxustegiartxe

bankarentzat dirua

herritarrontzat miseria



Euskal Herriak *hitza eta erabakia*



GREBA
orokorra
irailak **26**

